



ARG.: LXOWLE/CC-BY-SA.

Katuari dion beldurra betiko galtzen du toxoplasmosiak jotako saguak

Toxoplasmosiak saguari zuzenean eragiten dion kalteaz gain, ondorio larri bat eragiten dio: katu-usainari berez dion ikara galtzen du sagu infektatuak. Hare gehiago, gaixotasuna gainditu ondoren ere, antza, ez du berreskuratzen biziraupenerako beharrezkoa duen mekanismo hori. Horixe dio Californiako Unibertsitateko ikertzaile batzuek PLOS ONE aldizkarian argitaratu duten ikerketa batek.

Toxoplasma gondii parasitoak eragiten du toxoplasmosia. Patogeno zelulabakarra da, eta ugaztun- eta hegazti-espezie asko har ditzake ostalari gisa, baita gizakia ere; baina ugaldtu, katuaren hesteetan bakarrik ugaltzen da. Hortaz, gainerako animaliak bigarren mailako ostalariak dira parasitoa-

rentzat, eta, batez ere, garunean sortzen dituen kisteean kokatzen da. Bizi-zikloa burutzeko, katu batek irentsi behar ditu kistek. Testuinguru horretan, estrategia ebolutibo egokia da, parasitoarentzat, saguak katuari dion beldurra galaraztea, katuaren atzaparretan errazago eror dadin. Portaera-aldaketa hori parasitoak garunean sortzen dituen kistek eragin zezaketela jotzen zen orain arte. Baina Californiako Unibertsitatekoek kistek sortzen ez dituen birulentzia txikiko andui batekin egin dute ikerketa, eta ikusi dute hala ere katuaren usainari beldurra galtzen diotela saguek. Eta gaixotasuna gainditu eta parasitoak garunetik desagertzean ere, saguek ez dute beldurra berreskuratzen. ●

Jarduera sexualik ez, eguraldi txarra dator eta

Animalien portaera eguraldia iragartzeko erabili izan da tradizionalki, argudio zientifikorik gabe, ordea. Sao Pauloko eta Mendebaldeko Ontario Unibertsitateko entomologoek elkarrekin egindako ikerketa batean ikusi dute hiru espezieetako intsektuen sexu-portaeran “eguraldi-iragarpenak” eragina duela, eta presio atmosferikoa-ren aldaketak daudenean, sexu-harreman gutxiago izaten dituztela, eta azkarragoak, PLOS ONE aldizkarian argitaratu dutenez.

Ikerketa taxonomian urruti dauden espezieekin egin dute: *Diabrotica speciosa* kakalardoa, *Pseudaletia unipuncta* gaueko tximeleta eta *Macrosiphum euphorbiae* landare-zorria. Guztietan

ikusi dute aldaketa portaeran: presio atmosferikoa bat-batean jaitsiz edo igoz gero, emeek dei laburragoak egiten dituzte, eta arrak gutxiago mugitzen dira. Hortaz, estalketa gutxiago gertatzen dira, eta estalketaren aurreko gorteiatzea laburrago izaten da presioa egonkorra denean baino. Espezie batzuetatik bestetara aldeak izan dira; ikertzaileen aburuz, arrazoia da tamaina desberdina dutela, eta hegan egiteko gaitasuna ere bai.

Horrelako portaera-aldaketak babesa ematen dio intsektuari, presio atmos-



Diabrotica speciosa kakalardoa. ARG.: PABLO DIKRO/CC-BY-NC-SA.

ferikoaren aldaketak ekaitz edo haize-bolada handien seinale baitira, arrisku larriak intsektu txikien munduan. Beste kontu bat da nola ote diren intsektuok presio-aldaketa hori igartzeko gai. Ikertzaileek susmoa dute kutikulako ileak erabiltzen dituztela horretarako. ●